

OPORRAK

Gidoia

228 hitz



Oporrak heldu dira eta Zarautzera joan behar dugu. Urtero joaten gara Zarautzera. Zarautz Gipuzkoan dago eta herri zoragarria da. Hondartza handi bat du. Oso luzea da. Hondartzak alde batetik bestera 2 km eta erdi ditu. Gainera hondartza inguruan, oso gertu, mendiak daude. Eguraldi ona badugu, primeran ibiliko gara. Eskola urrun utzi nahi dugu.

Han bizitza ezberdina egiten dugu. Iratzargailuak ez du goizero jotzen eta horrela berandu jaikitzen gara. Oheak egiten ditugu eta etxea txukuntzen dugu. Bazkaria prestatzen dugu eta gero denok hondartzara joaten gara.



Bidean egunkaria erosten dut. Gero hondartzan denok irakurriko dugu baina nik erosi behar izaten dut, bestela ez du inork erosten.

Nire amak gurutzegramak egiten ditu eta nire aitak kirolak bakarrik irakurtzen ditu. Nik egunkaria irakurri nahi badut borrokan ibili behar dut. Dena dela, egunero irakurtzen dut eta ez naiz kexatzen.

Hondartzara heldu gara. Jende asko dago. Gehienak eguzkia hartzen ari dira. Oraindik goiz da eta itsasoan jende gutxi dabil: igerian ari dira. Beste batzuk jolastan ari dira. Gu beti leku berean esertzen gara; ohitura hau hartu dugu eta egunero berdin egiten dugu.



Eguerdian etxean bazkaltzen dugu. Hondartzan asko nekatzen gara eta ia egunero denok ohean etzaten gara: lokuluxka bat, besterik ez, baina nahikoa eta beharrezkoa.

Arratsaldero kalera irteten gara. Zarautzen udan beti dago zerbait eta oso ongi ibiltzen gara. Gainera Zarautzetik Donostia eta Getaria oso gertu daude eta honela egunak nahi gabe igarotzen dira.

Oporrak, Kimetz liburutik hartuta (moldatuta)